Euskal PEN
Basque PEN

Estatu Batuek sarrera ukatu diote Urtzi Gartzia euskal kazetariari. Euskadi Irratiko berriemailea Boisen, Idahon, egiten ari den Jaialdian lan egitera zihoan.

Badakigu gobernuen eskumena dela bertara joateko bisatua eman ala ez, eta azken aldian gehiegitan ixten zaiela atea atzerriko kazetariei. Kasu honetan, baina, AEBko gobernuak eskatutako tramite guztiak egin zituen Urtzi Gartziak, eta pasaportean kazetari bisatua zeukala abiatu zen etxetik uztailaren 26an. Munichen eskala egindakoan, baina, AEBk herrialdean sartzea debekatu ziotela jakin zuen. Itxura batean, bezperan, uztailaren 25ean gertatu zen erabaki aldaketa hori.

Urtzi Gartziarekin hitz egin du Euskal PENek, eta PEN International-i eta PEN America-ri eman die gertatukoaren berri. Gure eskerrak biei erantzun bizkorragatik, eta jazotakoa ikertzen jarraitzeko prestutasunagatik.

Euskal PENek Urtzi Gartziari elkartasuna adierazi dio, eta AEBko gobernuaren neurria gaitzetsi nahi du. Herritar zein profesional bezala egiten zaion kaltearekin batera, euskal herritarrontzat interes handikoa den ekitaldi bati buruzko informazioa jasotzeko eskubidea ukatzen digu.